

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko ekainaren 6a. IX. urtea. 2.362. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Iztueta, Salaberria, Iriarte, Larre eta Azerbaijango Tarana Karimova, atzoko aurkezpenean. LURKIZU



E.MAZ

Bidaiariak beren txokoa izango dute aurrerantzean, Tolosako Errotan

Tolosako Udalak Nairobitarra elkarteak eginiko proposamena onartu eta haur liburutegiaren ondoan, Bidaiarien Txokoa ireki dute; Antxon Bandresek zuen dokumentazio eta artxibo osoa izango dira bertan 04

→ **Ingurumena zainduz.** Alegian, Ibarren, Tolosan eta Amasa-Villabonan Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak egin zituzten, atzo, Tolosaldeko Aste Berdearen barruan. Ibarren (irudian) esaterako txakur kakei banderatzko laranja jarri zizkieten. 05



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA

ingeleraz
ere bai

ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

AURREMATRIKULAK Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak

Gutuna**Etorkizunean, erraustu ala birziklatu?**

Tolosan apirilean egin ziren Naturaldia jardunaldietan, ondorio bateratu batetara iritsi ziren bertan parte hartu zuten hizlariak. Natur baliabideak agortzen ari garela, hemendik oso urte gutxira goia joko dugula eta erantzukizun osoa dugula egoera honi buelta ematen hasteko. Beste hausnarketa batzuk hauek izan ziren: Zer nolako mundua utzi behar diegu gure seme-alabei? eta Zer nolako seme-alabak utziko dizkiogu munduari?.

Hondakinen gaira etorrita, Zubietan errauste planta eraikitzea mundua xahutzen jarraitzeko ereduarekin bat dator, behin eraikitzeko gero tonaka eta tonaka zabor beharko baitu bere izaera justifikatzeko. Eredu lineala jarraituz, natur baliabideen ustiapena + kontsumoa + zabor pilaketa + errausketa = kutsadura, aldaketa klimatikoa, gaitasun larriak, minbizia,...

Ez gaitezen engaina, proiektu hau ez dator askok aho handiz aipatzen duten produktuen murrizketa, birziklapen eta bererabilitzearekin bat. Gipuzkoarri errauste planta egitea 400 milioi euro kostatuko litzaiguke, eta 20 urterako hipotekatuta utziko gintuzke. Ez al dago beste lehenetsunik diru hau inbertitzei? Europatik datozen irizpideei ez al diegu jaramonik egin behar?

Zaborra sortu eta sortu aritu beharko genuke errauste planta hau elikatzen. Kutsaduraz ez da hitz egin nahi; ez da komeni %70a aireara tximinietatik, eta %23a zepa toxikoetan doazela azaltzea. Beste batzuek diote ez dela kutsakorra, baina badaezpada ere ez dute beren etxe ondoan nahi. Zepa toxiko horientzat eraikiko al dugu Tolosaldea eder honetan zabortegi bat? Tolosaldean jada jendartea aztoratuta dabil atez ateko bilketa sistema dela eta; komunikabide eta politiko batzuek egin duten zabor kanpainaren ondorioz, jendeak beldurra barruraino sartua dauka. Zeren beldurra?

Atez atekoa hondakinen %80a birzikla dezakeen sistema eraginkor bat besterik ez da. Orain arte ez da emaitza hauek gainditzen dituen beste sistemarik asmatu.

Ez al litzateke ona izango, denon artean birziklapen kopuru horietara iristea norbera bere hondakinen arduradun eginaz? Non dago gure erantzukizuna? Ba al dakizue Italian, Katalunian, San Frantzisko hirian eta beste hainbat lurraldetan atez ateko sistemak ondo funtzionatzen duela?

Aipatu, beste batzuek Gipuzkoako herri batzuetan, sinadura bilketak martxan jarri dituztela atez atekoaren aurka, eta bosgarren edukiontziairen alde.

Erraza da jendearen beldurraz eta informazio faltaz baliatuz, sinadurak biltzen hastea. Bosgarren edukiontziairen bilketa sistema hau, kasurik onenean, %35a birziklatzera iritsi daiteke; zer aterabide izango luke geratzen den zaborraren %65ak? Erraustearena?

Pasa den aste honetan Europako parlamentuak, birziklagarriak diren gaiak erraustearen aurka eta zabortegi eta errauste plantak ez eraikitzearen aldeko mozioa aurrera eramanean du, 2020. urterako epe muga jarritz.

Kontraesankorra, Gipuzkoan errauste plantarekin tematuta dauden alderdi politiko horiek, Europako parlamentuan errauste plantak ez eraikitzearen eta ixtearen aldeko mozio honi beren babesa eman izana. Nahikoa dugu interes politikoez, noiz elkartzeko gara arazo honi sustraietatik heldu eta denon artean konponbidean jartzeko? Gu prest gaude elkarrikerarako, eta gonbidapena zabaltzen diegu alderdi politikoei eta, batez ere, Tolosaldeko herritar guztiei, gurekin batera zein etorkizun nahi dugun eztabaidatzeko.

Agurtzeko, pentsamendu bat: «Hainbeste saiatzaren gara gure seme-alabak etorkizunerako prestatzen. Baina, nahikoa egiten al dugu gure seme-alaben etorkizuna prestatzerakoan?», Larry Chalfan.

■ **Tolosaldeko Zero Zabor taldeak.**

Irudia**GAUZA TXIKIEN HANDITASUNA BERTSOTAN**

Laugarrenez antolatuta du aurten, Tolosako lurte elkarteak, Bertso Paper Lehiaketa. Pasa den astelehenean izan zen sari banaketa, udaletxeko pleno aretoan. Aurten honako gaia proposatu zuten gaztetxoei: estimatzen ditugun gauza txikiak. Seigarren postuan, Izaro Perurena eta Laida Men-

diluze sailkatu ziren; bosgarren Ane Oizartzabal eta Oihane Zinkunegi; laugarren Amaia Imaz eta Alaia Ugalde; hirugarren, Naroa Jauregi eta Ana Jauregi; bigarrenak Garazi Otamendi eta Irupe Gurrutxaga izan ziren; eta aurtengo irabazleak, Olaia Jauregi eta Aitor Vitoria izan ziren. ITZEA URKIZU

Eragileen mahai ingurua egingo dute hondakinen lantaldeko lehen fasea amaitzeko

Aurretik egindako lau bileretan azaldutakoa abiapuntu hartuta, Tolosari begirako iritziak bilduko dituzte

Itzea Urkizu

Gaur amaituko da, Tolosako Udalak antolatutako hondakinen kudeaketarako lantaldearen lehen fasea, eragileen arteko mahai inguru batekin.

Lau bilera egin dituzte, guztira, orain arte. Lehenengoan, gaur egungo errealtatea eta egoera aztertuta zuten, gaia oinarri-oinarri-

tik heltze aldera. Bigarren saioan, berriz, Gipuzkoa osoan hondakinen gaian bizi duen egoera izan zuten hizpide bertaratutako hizlari eta eragileek. Hirugarren bileran, hondakinen bilketarako dauden hainbat eredu azaldu zituzten.

Pasa den maiatzaren 23an izan zen, laugarren saioa; hondakinen kudeaketaren gaia ekonomia-ikuspegitik jorratu zuten saio hartan.

Batetik, Tolosako Udaleko kontu-hartzailetzako teknikariak ari ziren hizketan: besteak beste, gaur egun, Tolosan, hondakinen kudeaketak aurrekontu osoaren %5a hartzen duela azaldu zuten, 1.300.000 euro inguru, alegia.

Bilera berean, ordea, Xabier Olano ere hizlarietako bat izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaria da bera, eta hainbat bilketa ereduaren arteko kostuen alderatzea aztertzen zuen txostena aurkeztu zuten bertaratuei. Besteak beste, hondakinak atez ate jasotzen diren herrietan bilketa gastuak igo egiten direla berretsi zuten arren, tratamendu gastuetan sortzen den beharpenarekin goera hori «erraz» orekatzen dela nabar-

mentu zuten Olano Ogasun Zuzendariak.

Era berean, birziklagarria den material gehiago jasotzeak, diru sarrerak handitzea dakarrela ere azaldu zuten; zabortegietara bidertutako materiala gutxituz, gastuak ere «asko» jaisten direla nabarmendu zuten.

Azkenik, Tolosako Mankomunitateko teknikariak, gaur egun bilketa nahiz tratamendu gastuak nahiko parekatuta daudela nabarmendu zuten lan taldeko saioan.

Iritziak biltzeko garaia

Aurreko lau saioetako informazioa kontuan izanda, lan taldean parte hartu duten eragileen iritziak biltzea izango da, gaur, 19:00etan, pleno aretoan izango den azken bileraren helbururik behinena.

Lehen fasea amaitzeko, mahai ingurua egingo dute, beraz, eragileetako kideen artean, eta bakoitzak, bilketa sistemen inguruan, Tolosarako eredurik egokienaren inguruan, derrigorrezko ala borondatezko bilketa sistemen inguruan nahiz lortu beharreko birziklatze tasaren inguruak bere iritzia azaldu beharko du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak**LANA**

■ **Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da, asteburuetan eta jai egunetan eguerdiz lan egiteko. Esperientziadun zerbitzaria behar da, Lekunberrin (Nafarroa) dagoen jantoki baterako. Interesa dutenek, dei dezatela 659 01 52 47 telefono zenbakira.

Haurrei zuzendutako 'Altzoko Haundia, txikien opera' ren grabaketa, kalean

David Azurza tolosarrak konposatu du obraren musika eta Koldo Izagirre idazlearenak dira testuak

Imanol Garcia Landa

David Azurza tolosarrak bultzatutako *Altzoko Haundia, txikien opera* ren grabaketak ikusi du argia. Azurzak berak sortu du musika eta Koldo Izagirrek idatzi ditu testuak. Aurten Tolosako Hodei Truk abesbatzaren 25. urteurrena dela eta sortutako proiektua da, eta Donostia 2016 egitasmoaren barruan dago. Azurzak azaldu duenez, «Hodei Truk haur abesbatzakoek parte hartze handia dute obran eta haurrei zuzendutako opera da. Horregatik jarri dugu izenburuaren ondoan 'txikien opera'».

Azurzak esandakoaren arabera, «oso pozik» gelditu dira emaitzarekin, eta bereziki eskertu dio Fredi Pelaez soinu teknikariari egindako lana. Musikagile eta abeslari tolosarra Alton bizi da egun eta aspaldidanik Altzoko Haundiaren pertsonaia eta historia erakargarri egin zaio. Koldo Izagirrerri istorioa idazteko eskatu zion eta honek bere lana hasi zuen, aurretik jasota zituen oharretatik abiatuta.

Handitasuna, hizpide

Izagirrek aurkezpenen azaldu duenez, «harrigarria da asko idatzi dela Haundiari buruz, baina modu etnografiko batean, eta ez istorio bat sortzeko. Badakigu obra ez dela biografia antzeztua», esan du idazleak. «Lanarekin gal-



Altzoko Haundia, txikien opera obran parte hartu duten sortzaileak eta erakundeetako ordezkariak. I.G.L.

dera bat probokatu nahi nuen: zer da handitasuna?», azaldu du Izagirrek. Bestalde, idazleak bere harritura azaldu du testu batetik nola egin daitekeen obra musikatu bat. «Hasieran antzerkia zena, pixkana opera bilakatu da eta ezuste handia izan da», esan du Izagirrek eta Azurza goraiatu du, «eragile eta kudeatzaile beldurgarria» dela esanez.

Hodei Truk abesbatzaz gain, Jagoba Fadrique, Maite Arruabarrena, Anjel Alkain, David Azurza eta Leire Alargunso abeslariak parte hartu dute. Andoni Alemanek egin ditu narratzaile lanak eta aktore lanetan aritu dira Amaia Corral, Kike Amonarri, Koldo Izagirre, Ainhoa Pine-da eta Ines Martinez de Iturrate. Musikariak Miren Zeberio, Jone Rezola, Luis San Sebastian, Aitor

Furundarena eta Iraide Ansorena izan dira. David Azurzak berak egin ditu grabaketaren zuzendari lanak.

Lehenengo pausoa

CDaren grabaketa proiektuaren lehenengo pausoa dela azaldu du Azurzak. Aurrera begira txotxongiloekin obra antzezteko asmoa dute. Aurkezpenen Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehen-dakaria izan da, eta berak azaldu duenez, «aurten ezingo da antzeztu lana egin, alde batetik, ez dagoelako denbora nahikorik, eta, bestetik, ez dagoelako dirurik».

Arretxek gogoan izan du Tolosako eta Donostiako 2016ko Txotxongiloen Nazioarteko Biltzarra eta Jaialdia hartuko dituztela, eta obra proiektu horren baitan sartuta dagoela. Operaren txotxon-

giloen emanaldiari dagokionez, Emanuel Marquez mexikarrak zuzenduko du. Tolosaz gain, obra beste leku batzuetan antzezteko nahi dute.

Hainbat erakunderen babesa jaso du proiektuak: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa, Gipuzkoako Foru aldundia, Altzoko Udala, Tolosako Udala eta Calcinor enpresa.

Entzunaldia, gaur, Tolosan

Atzo obraren entzunaldia egitekoak ziren Altzoko eskolan eta udaletxean. Gaur, 19:00etan, Tolosako Topic zentroan aurkeztuko dute proiektua eta entzunaldia ere egingo dute. Bertan grabaketa erosteko aukera izango da ere, eta ohiko prezioa 14 eurokoa bada, gaurko ekitaldian 12 euroren truke erosi ahaliko da.

→ Laburrak

Patinaje klub batean parte hartzeko deialdia

TOLOSA Patinaje klub bateko partaide izan nahi duten guztiei gonbitea luzatu diete, etzi, ekainaren 8an, kultur etxean egingo duten bilerara. 20:00etan hasiko da eta kultur etxeko lehenengo solairuan elkartuko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, zalantzaren bat argitu nahi duenak irristaka@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Hernanira bisita gidatua antolatu du Zero Zabor-ek

TOLOSA Hernanira bisita gidatua antolatu du Tolosako Zero Zabor taldeak. Igandean, ekainaren 10an, izango da. 19:30ean Trianguloa plazaetik abiatuko dira autobusean. Bisita gidatua Pello Zubiriaren eskutik egingo dute: atez ateko sistemaren nondik norakoak azalduko ditu, eta kamioiek hondakinak nola jasotzen dituzten ere ikusteko aukera izango dute. Mokadutxo bat jango dute eta 23:00ak aldera Tolosara itzuliko dira. Autobusaren prezioa 5 eurokoa izango da. Interesa duenak tolosazerozabor@gmail.com helbidera mezua bidali behar du izen abizen, posta elektronikoa eta telefono zenbakiarekin. Azken eguna horretarako bihar izango da.

Iturriza elkartearen San Joan mus txapelketa

TOLOSA Iturriza jubilatuen elkarteak, aurreko urtean bezala, San Joan jaialki direla eta mus txapelketa antolatu du, lau eta zortzi erregetara. Aurten laugarren aldian izango da txapelketa antolatzen dutena. Parte hartu nahi duenak izena eman dezake hilaren 19a arte, elkartearen bulegoan, 10:00etatik 12:00etara, eta astelehenetik ostiralera. Tolosaldeko edozeinek parte hartuko ahaliko du txapelketan. Iturriza jubilatuen elkarteak bulegoetan egingo da txapelketa, eta hilaren 22an, 10:30ean, hasiko da. Mus txapelketa azkarra izango da.

Gure Txokoak bilera egingo du eskopetariekin, etzi

TOLOSA Gure Txokoak elkartearekin batera San Joan egunean eskopetari gisa atera behar dutenei, bilera batera deitu diete. Elkartearen bertan elkartuko dira, etzi, hilaren 8an, 20:00etan. Gure Txokoak elkartetik azaldu dutenez, bilera amaitu eta gero trikipoteoa egingo dute.

Irudia » Tolosa



ALDUNDIA, EGITASMOEN BERRI EMANEZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere egitasmo nagusien berri eman zuen Tolosan, herenegun arratsaldean, Hirukide ikastetxearen aretoan. Bertan, Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturarako diputatua izan zen azalpenak emanen. Eskualdez eskualde ari da bilera hauek foru aldundia, orain arte egindako lanaren eta etorkizuneko bere egitasmoen berri emanez. Herritarrek iritzia emateko, galdetzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten bileran. E.MAIZ

Bidaiarien jakinmina asetzeko txokoa izango da Tolosako Errotan

Antxon Bandresetik zituen dokumentuek osatuko dute txoko berriko artxiboaren zatirik handiena

Itzea Urkizu

Bidaiarien Txokoa izango da aurrerantzean, Tolosako Errotan, bidaiarien jakinmin, interes eta zalantzak elkartrukatzeko gune moduan. Nairobitarra Elkartek Tolosako Udalarari egindako proposamenak aurrera jarraitu du, eta atzo eguerdian aurkeztu zuten, Antxon Bandres omenduko duen proiektua.

Josu Iztuetak azaldu zuenez, esku artean duten egitasmoa herritarrei aurkezteko gogoia zuten: «Zertan ari garen jendeari azalzteak merezi duela uste dugu». Horrela beraz, Antxon Bandresetik zuen dokumentazio eta artxibo osoa eskuragarri izango da Errota eraikineko beheko solairuan aurrerantzean, bidaiarien txokoan.

«Materialak leku egokia behar zuela uste genuen. Izan ere, Antxon Bandresetik liburu eta aldizkari asko zituen, milaka, eta nik hamahiru urte nituenean, Bandresetik bere etxeko giltzak uzten zizkigun, liburuak irakurtzeko nahiz musika entzuteko. Horregatik uste dugu, bere dokumentuek eskuragarri egon behar dutela, berak hala nahi izango zuke-



Josu Iztueta eta Nagore Salaberria Nairobitarra Elkarteko kideak, logotipoa aurkezten. I. URKIZU

en», nabarmendu zuen Josu Iztuetak.

Agerraldian, Ibai Iriarte alkateak prozesuaren nondik norakoa azaldu zituen: «Proposamena jaso genuenean, ideia oso xumea izan arren, oso erakargarria iruditu zitzaigun, indar handikoa». Bide horretan, udalak Errotako beheko solairua libre geratu zenean, lekua Nairobitarra Elkartearen egitasmoarentzat utzea era-

baki zuen. Iriartek, proposamena izugarri interesgarria iruditu zaiola nabarmendu zuen: «Tolosak bidaien inguruan tradizioa du, eta bada hemen, bidaiak era alternatibo batean egiteko ohitura. Kultur ondarea da hemen jasotako dena, eta esperientziak elkartrukatzeko nahiz irribarre egiteko txoko irekia izan behar du herritar guzientzat. Antxon zena omentzeko modurik onena da».

Bolondres bidaiariak

Nairobitarra Elkarteko Nagore Salaberria iruratarrak, Antxon Bandres Bidaiarien Txokoak

izango duen funtzionatzeko era azaldu zuen aurkezpen ekitaldian: «Bidaia ez da lekualdatzea bakarrik: kartografia, geologia, kultura eta hizkuntza ere jorratzen dituzte bidaiak, eta gai hauek guztiak tailer, aurkezpen, ikastaro eta abarren bitartez jorratzea da gure helburua, txoko honetan».

Horretarako, bolondres sare moduko bat sortu nahi dute Nairobitarra Elkartekoek. Momentuz, iragarki arruntak erabiliko dituzte deialdia zabaltzeko, eta Interneti ere garrantzia berezia emango diote txokoaren jarduerak zabaltzerakoan. [\[rientzokoa.wordpress.com\]\(http://rientzokoa.wordpress.com\) bloga zabaldu dute jada, eta Facebook-en ere orria egin dute; webgunea sortzea euren hurrengo pausoa izango dela nabarmendu zuen Salaberriak: «Hemengo foro fisiko internetekoarekin paraleloan joatea nahi dugu».](http://bidaia-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Txoko berrirako diseinatu duten logotipoa ere aurkeztu zuen Nagore Salaberriak. Hainbat koloretako zatiek osatutako mundu mapa bat irudikatu dute, aniztasunarekin lotze aldera, eta kolore alaiak erabiltzen saiatu dira. Halaber, Antxon Bandresen izena letra xehez idatzi dute kartelean, «berak hala idazten zuela badakigulako».

Antxon Bandres Bidaiarien Txokoa, Tolosako Udal Liburutegiaren osagarri modukoa ere izan daitekeela azaldu zuen Susana Larrek, liburutegiko arduradunak: «Helduen liburutegian ezin da gai bakoitzean hainbeste sakondu, eta hau perfektua da horri dagokionez. Gainera, kultur jardueretan sakontzeko eta espazio egokia izan daiteke Errota liburutegiarentzat ere. Gainera, ezagutza hau jendearen esku jartzeko oso modu interesgarria da».

Aurkezpenaren amaieran Josu Iztuetak nabarmendu zuenez, liburuak kokatzeko lanetan ari dira orain. Horrekin amaitzean, katalogatu egin beharko dute material guztia, eta liburutegiko arduradunen laguntza beharko dute horretarako. Honen harira, edozein herritarrek liburuak nahiz bidaiakin loturiko edozein gauza errotan utzi nahiko balu, atek zabalk izango dituela azpimarratu zuen.

Antxon Bandres Bidaiarien Txokoaren irekiera «mailaz-mailakoa» izango dela azpimarratu zuten arduradunek, eta autofinantziatzeko eta autogestioatzeko bideak hartuz, herritarrei antolatuko dituzten jardueren berri pixkanaka emango dietela ere bai.

Uda honetan **zatoz HITZA**ren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 6tik Uztailaren 27ra eta laso eguzkitako hau oparil!

Harpidedunen artean: **Plomo en los bolsillos** surf taula

Harpidedunak: **902-82 02 01** harpidedun@hitza.info

hitza

Frantziako Tour-a ikusteko dauden hamaika modu, Izagirreraren liburuan

Ander Izagirrek, 'Plomo en los bolsillos' liburuaren edizio berria aurkeztu du; hiru atal gehitu dizkio

I. Urkizu

Frantziako Tour-a beste ikuspuntu batetik ezagutu ahal izango dute, Ander Izagirre kazetari eta txirrindulari ohi donostiarraren *Plomo en los bolsillos* liburuaren irakurleek.

Errotako eraikinean egin zuten liburuaren edizio berriaren aur-

kezpena. Izan ere, hiru atal gehitu dizkio Izagirrek liburuari.

Libros del K.O. argitaletzeko Emilio Sanchez madrildarra aurkezpenaren izan zen, eta bien arteko harremana nola sortu zen azaldu zuen: «Liburuaren lehen bertsioa bidali zidanean, liluratuta geratu nintzen, eta lan horrek argitaratua izatea merezi zuela pentsatu nuen».

Txantxa moduan, Izagirrek, Donostiatik Madrilerako bizikletan joango zela esan zion, argitalpenaren harira, baina Plomotour deiturikoa sortu dute azkenean, liburu hainbat herritan aurkezteko. Ander Izagirrek, Pello Ruiz-

Cabestany bidelagun izango du ibilbidean, beste lagunbatzuekin batera.

Tour-eko ilusioak paperean

Ander Izagirrek, Frantziako Tour-a txiki-txikitatik ezagutu izan duela nabarmendu zuen: «Tour-ak sortzen zizkidan amets eta ilusioak islatu nahi izan ditut liburuan, baina baita lasterketa beste ikuspuntu batetik kontatu ere».

Bide horretan, duela ehun urteko arau zorrotzak, beti bigarren postua lortu izan dutenen arrakasta, Lance Armstrong-i eskainitako atala eta antzekoak izango dira hizpide liburuan.

Elizari ondasun higiezin gainera zerga eskatuko diote Amasa-Villabonan

Udalbatza osatzen duten Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien zinegotziek bat egin dute OHZren gainan

Asier Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udalbatzak, ohiko osoko bilkuran, eliza katolikoaren eta beste erlijio sinetsibideen izenean erregistratutako higiezin OHZ aplikatzearen alde egin du.

PSE-EEek aurkeztu zuen mozioa, eta alderdi guztietako zinegotziek aldeko bozka eman zuten. Ondorioz, elizak Villabonan dituen Ondasun higiezinak zeintzuk diren aztertzen hasiko da udala, beti ere, gurtzeko guneak kontuan hartu gabe.

Mozioan jartzen zuenaren ara-

bera, erlijio desberdinak gurtzen dituzten taldeek herritarren moduan jokatu beharko lukete, are gehiago, herritarrei esfortzu bereziak eskatzen zaizkienean. Bereizitasun hauekin amaitzeko OHZ ordaintzen hastea eskatu zuten Amasa-Villabonako Udalak. Ondasun higiezin hauek, herritarrek erlijio jakin bat gurtzeko erabiltzen ez dituzten lokal, etxebizitza, garajeak... izango lirateke.

Nafarroako konkista

OHZren inguruko mozioaren ondoren, Bilduk Nafarroako konkistaren eta euskal udalerrien aurkako bombardaketaren inguruko mozioa aurkeztu zuen. Lehenak 500 urte betetzen dituelako eta bigarrenak 75. Kasu honetan, PSE-EEren zinegotziak aurka bozkatu zuten, eta EAJren bi ordezkariak abstentzioaren alde egin zuten.

Mozioaren alde egiterako unean, Bilduk, helburua «gure nortasuna eta nazio izaera aldarrakitzea» direla esan zuen. PSE-EEren ordezkariak bombardaketaren aurka zegoela esan zuen, baina Nafarroako konkistaren irakurketa historikoaren inguruan bere zalantzak azaldu zituen. Azkenik, EAJren zinegotziek gertakari historikoaren irakurketarekin bat egin zuten, baina mozioko puntu baten inguruan zalantzak agertu zituzten: «Nafarroa Bizirik plataformarekin bat egin dio mozioak, etorkizuneko nazioaren eraikuntzan, baina ez dakigu etorkizuneko nazio horren zentzu politikoa zein den».

Udalbatzaren bilkuraren azken puntuan, aho batez, bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantzaren aldateta onartu zuten hautetsi guztiek, egutegia egokituz.



PSE-EEren mozioaren alde egin zuten herenegun, Amasa-Villabonako hautetsi politikoko guztiek. A. IMAZ

Udalak bertso eta ipuin lehiaketako sariak banatu ditu

Amasa-Villabonako ikasleek jaso dituzte sariak; bertso lehiaketan bi aipamen berezi egon dira

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak ipuin eta bertso lehiaketako sariak banatu ditu. Jesusen Bihotza, Fleming eta Ernioabeako ikasleak izan dira sarituak. Bertso lehiaketan, DBH 3-4ko ikasleen artean, lehen hiru sariez gain bi aipamen berezi banatu dituzte: Amaia Aizpuruari (Jesusen Bihotza) eta Iñigo Otaegiri (Jesusen Bihotza).

↓ Saridunak

IPUIN LEHIAKETA

LH3-4. 1. Mattin Etxeberria (Jesusen Bihotza); 2. Joane Ugarte (Fleming); 3. Alain Jimenez (Jesusen Bihotza).

LH5-6. 1. Olaia Ugarte (Fleming); 2. Nagore Arruabarrena (Jesusen Bihotza); 3. Lander Gartzia (Fleming).

DBH1-2. 1. Kimetx Urkola (Jesusen Bihotza); 2. Ane Galarza (Ernioabea); 3. Shrabani Aranzabe (Ernioabea).

DBH3-4. 1. Olaia Gorostidi (Ernioabea); 2. Unai Iparragirre (Ernioabea); 3. Naroa Balda (Jesusen Bihotza).

BERTSO LEHIAKETA

LH3-4. 1. Maddi Ormaetxea (Jesusen Bihotza); 2. Oier Loidi (Jesusen Bihotza); 3. June Yugueros (Jesusen Bihotza).

LH5-6. 1. Naroa Iraola (Fleming); 2. Lur Irazusta (Fleming); 3. Lierni Larrañaga (Fleming).

DBH1-2. 1. Janire San Sebastian (Ernioabea); 2. Lander Mujika (Ernioabea); Maddi Otegi (Ernioabea).

DBH3-4. 1. Leire Olazabal (Ernioabea); Martin Lizardi (Ernioabea); 3. Ane Geresta (Ernioabea).

Gutuna

XIV Orduak ibilaldia dela eta, gure barkamen zintzoa eta esker ona

Egin du berea XIV Orduak ibilaldiaren 15. edizioak. Eguraldia lagun, egun zoragarria egokitu zitzaigun aurten: mendiaz eta martxaz gozatzea. Zorionik beroenak parte hartu duzuen guztioi, eta eskerrik zintzoenak modu batera edo bestera lagundu diguzuen guztioi. Zuek denok egiten duzue ibilaldi hau berezi.

Antolatzaileok ere egin dugu ahalegina gauzak ahalik eta txukun egiteko, mila xehetasun ahalik eta hobekien lotzeko, baina, egia esan, ez da lan erraza. Aurten aldatuta batzuk egiten saiatu gara. Batetik, ibilbidetan pare bat moldaketa egin ditugu, Lekunberriko sarreran lehena, eta San Migeletik Guardetxerako tartean bigarrena; eta gaude, jendeak ondo hartu dituela, oro har. Errepideari jan dizkiogu metroko eta mendiari eman.

Bestetik, berriz, mendira beharrezkoa gainean eramateko filosofia indartze aldera, jaki batzuk kendu ditugu anoa gunetan, eta horrek hainbat gorabehera sortu ditu. Jakinarazi genuen martxari buruzko liburuxkan, aurten janari gutxiago izango zela eta zehaztu genuen zer jaki izango zen anoa gune bakoitzean. Saiatu ere saiatu gara horren berri komuni-

kabideetan ematen, baina bistan da ez dugula guztiz asmatu; edo mezua ez dela ondo iritsi partaideengana. Alde horretatik, barkamena eskatu beharrean gara.

Garbi dago huts egiteren bat izan dela. Ura, laranja, tomate eta ogitarteko kopuruak delatila lau urteko proportzioan kalkulatu ditugu, aurreko urteetan sobera izan zirela kontuan hartuta, baina aurtengoaan jakituzk kendu ditugunez, besteeztatik gehiago hartu du jendeak. Ondorioz, zenbait anoa gunetan, Lekunberri, San Migelen eta Igaratzen zehazki, arazoak izan dira, eta azkenekoak, behar gehien zutenak, jaki batzuk gabe, edo batere gabe geratu dira. Hortik etorri dira haserreak, errietak eta laguntzaileen inpotentzia eta nahigabea. Zinez diogu, zuek adina sentitzen dugu guk.

Ikasteko balioko al digu aurtengoak. Zer bide, zer filosofia hartu... badugu denbora hausnartzeko; XIV Orduak ibilaldiak berezi izaten jarrai dezan nondinora jo gogoeta egiteko. Beste behin ere barkamenak eta eskerrik beroenak partaide eta laguntzaile guzti-guztiori. Lau urte berri elkar ikusiko dugulakoan, nahi duzuen arte.

■ **Aralarko Adiskideak.**

Billabona FKEren inguruan bildu nahi dituzte herritarrak

Aurtengoa, bazkarirako txartela alde aurretik erostea eskatu du taldeko zuzendaritzak

A. Imaz Amasa-Villabona

Billabona FKE futbol talde bat baino gehiago da, eta hori islatu nahi dute ekainaren 16ean, elkarrean egunean. Horretarako herritar guztiak gonbidatu dituzte egun osoko jaira, «klubaren partaide izatea nahi baitugu herria», azaldu dute taldeko arduradunek. Helburu horrekin orain arteko ohitura aldatu egin dute aurtengoa, eta herrian ospatuko dute jai guztia. Goizean txiki-betentzat jolasak antolatuko dituzte Malkar eta Txistulari plazan. On-

doren, kalejiran denak Txermine-ra joango dira, bazkari herritarre-ra. Taldea uzten duten jokalariei omenaldia egingo zaie bertan.

Arratsaldeari musikarekin emango diote hasiera eta amaiera, hori bai, barra baten inguruan.

Bazkarirako txartelak

Herri bazkarirako txartelak jadanik salgai aurkitzen dira Villabonako Kazetaria dendan. Helduek 25 euro ordaindu beharko dute, eta haurrek 15. Batzuentzat eta besteentzat menu bereziak egongo dira. Zuzendaritzatik azaldu dutenez, aurten txartelak alde aurretik erosi beharko dira, egunean bertan txartelak ez duenak ez baitu bazkaltzeko aukerarik edukiko. Horregatik, hilaren 9a baino lehen txartelak erosteko eskatu dute.

Udaberri Taldeak Gaztelun hirigintza irregulartasunak burutu direla esan du

Mikel Belloso alkatearen eta Otegi eraikitzailearen mesedetan egin direla salatu dute

Erredakzioa Gaztelu

Gazteluko Udaberri Taldeak Mikel Belloso alkatearen eta herriko Juan Jose Otegi eraikitzailearen kontrako administrazioarekiko auzi helegitea jarri du. Hala jakinarazi du EFE berri agentziari bidalitako ohar baten bidez. Udaberri Taldearen hitzetan, «herrian hirigintza-irregulartasunak burutu dituzte alkateari eta eraikitzaileari mesede egiteko asmoz».

Udaletxean zinegotzi bakarra duen taldeak azaldu duenez, eraikuntza eremu bat 54.000 euroren truke saldu zen, nahiz eta euren ustez, gutxienez 150.000 euroren-gatik saldu beharko litzatekeen. Eremua prezio tasatuko bi familiako etxebizitza egiteko saldu zen. Udaberriren hitzetan, eraikuntza-eremuaren esleipena enkantera aurkeztu zen promotore bakarrak, Juan Jose Otegi, eskuratu zuen. Otegi, Gazteluko alkate izandakoa, zortzi urteko gaitasungabetze zigorra ari da betetzen, prebarikazioa egotzita, hain zuzen ere, «aurretik lursail eta etxe berdinen gainean eginiko hirigintza ekintzaren-gatik».

«Informazio eza»

Gazteluko Udalean oposizioan den Udaberri taldeak dioenez, eraikitzen ari diren bi familiako eraikineko bi etxebizitzak jabeak Juan Jose Otegi eta Mikel Belloso alkate dira. «Oso larria da hori, eta, are eta gehiago, gaiaren gainean dagoen informazio eza kontuan hartuta». Halaber, Udaberri salatu duenez, lursailaren



Eraikitzen ari diren bi familiatzako etxebizitza. I. TERRADILLOS

salmenta enkantea «aurrekontuetatik kanpo eta urgentziarako prozeduraren bidez» egin zen. Gehitzen dutenez, aurretik Kontratazio Mahaian aurkeztu zen 51.000 euroan, «bere egiazko balioari egokituriko prezioan».

«Salmenta honekin dirua galduko zenik ez da ez Kontratazio Mahaian ez eta osoko bilkuretan esan», adierazi du oposizio taldeak. Gainera, Udaberri dioen arabera, «ekintza honen espedientearen dokumentazioan ez dira gastu guztiak aintzat hartzen».

«Gaiaren inguruko dokumentazioaren eskaera egin dugu idatziz, eta bilera bat ere egiteko eskatu dugu, baina, ez alkateak, ez

Kontratazio Mahaiko presidentek, ez udaletxeko idazkariak, ez digute erantzun», salatu dute. Euren ustetan, hirigintza jarduerak honetako partidei dagokienez, etzi jokatuko dira, Amezketan, Altzon, Adunan, Asteasun, Albizturren, Berastegin eta Bidegoianen, 19:00etan hasita.

Hori dela eta, «obrak berehala geratzea» eskatzen dute, eta baita «Mikel Belloso alkatearen, Kontratazio Mahaiko presidentearen eta Aitziber Barandain eta Patxi Iturriaga zinegotzien dimisioa».

• ibarraldea@hitza.info

IX. Hitza Pilota Txapelketako lehen pilotakadak hasi dira

Esku pilotako Gipuzkoako Herriartekoan Bidegoianek aurrera egin du

Erredakzioa

Iragan asteburuan hasi zen IX. Hitza Pilota Txapelketa. Asteburu honetako partidei dagokienez, etzi jokatuko dira, Amezketan, Altzon, Adunan, Asteasun, Albizturren, Berastegin eta Bidegoianen, 19:00etan hasita.

Bestalde, esku pilotako Gipuz-

koako Herriarteko Txapelketan garaipen berri bat eskuratu du Bidegoianek. Hain zuzen ere, iragan larunbatean jokatu zuen etxean, Urretxuren aurka, eta bai kadeteak, bai eta jubenilak ere, nagusi izan ziren, 22-1 eta 22-1eko emaitzarekin. Nagusien mailan, berriz, 5-22 galdu zuen Bidegoianek. Beraz, 2-1eko emaitzarekin aurrera egiten dute txapelketan.

Bestalde, Herriarteko zesta punta Txapelketan, Tolosak 3-0 galdu zuen Mutrikuren aurka. Beotibarren jokatu zituzten partidak iragan igandean. Kadeteek 22-30 egin zuten, jubenilek 31-35, eta nagusiek 25-35.

↓ HITZA Pilota Txapelketako emaitzak

INFANTILAK

Arandia-Aizpitarte	18
Agirretxe-Artola	2
Arruti-Luzuriaga	12
Zubeldia-Artola	18
Luzuriaga-Otaegi	18
Dorronsoro-Zinkunegi	6
Altuna-Zubeldia	18
Jauregi-Pagola	7
Egibar-Ezeiza	1
Iraza-Mujika	18
Oiarbide-Murua	2
Elola-Jauregi	18
Mozo-Alustiza	18
Mujika-Zubeldia	2

ALEBINAK

Olazabal-Eraso	16
Agirre-Zubeldia	9
Morales-Zeberio	16
Perurena-Ruiz	6
Txapartegi-Tolosa	9
Iraola-Alberdi	16
Iruetagoiena-Olazabal	4
Ugartemendia-Lasa	16
Agirre-Iratorza	16
Esteban-Gorostidi	11
Goikoetxea-Arruabarrena	16
Zugasti-Bengoa	4
Bengoa-Jauregi	12
Otaño-Elola	16
Zinkunegi-Etxeberria	12
Olasagasti-Zabala	16



BENJAMINAK

Altuna-Estarbe	16
Otaño-Rekondo	1
Altuna-Perurena	16
Altuna-Sarasua	10
Lasa-Lopetegi	16
Uzkudun-Artola	3
San Sebastian-Muñoa	16
Aburuza-Olasagasti	14
Huizi-San Sebastian	10
Esteban-Zubeldia	16
Eraunzetamurgi-Perurena	16
Elduaen-Iraza	14
Zeberio-Morales	16
Agirrezabala-Urkiri	6
Goiburu-Agirrezabala	16
Gorostidi-Ugartemendia	7
Eraso-Sudupe	16
Iztueta-Altuna	12
Ugartemendia-Erauskin	7
Amondarain-Galartza	16
Agirretxe-Larrarte	16
Regillaga-Regillaga	2
Altuna-Iraeta	16
Otermin-Galarraga	8

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	26°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariorde: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Jai batzordearen bile-
ra, gaur, 19:00etan, kultur etxe-
an. Sanjoanetako egitarauaz
eta aurrekontuaz hitz egingo
dute.
- **Tolosa.** *Altxoko Haundia* hau-
rrentzako operaren CDa aurkez-
tuko dute gaur, Topic zentroan,
19:00etan.
- **Tolosa.** Larramendi auzoko
kontsultaren aurreko azken in-
formazio saioa, gaur, 19:00etan,
Arkauteko etxean (Gurutze Go-
rria).
- **Villabona.** Billabona FKE fut-
bol taldeak bere eguna ospatu-
ko du ekainaren 16an, eta baz-
karia Tolosako Usabal sagardo-
tegiari egingo dute. Helduen
txartelak 25 euro balio du, eta
haurrenak 15 euro. Txartelak
ekainak 9 bitarte erosi daitezke
Villabonako Kazetari dendan.
- **Villabona.** Tolosaldeko Aste
Berdearen barruan, gaur, Eliza-
tik Etxe-Ondora arteko bizilag-
nei zuzendutako hondakinen
kudeaketaren inguruko hitz-
aldia izango da, 19:30ean, udale-
teko bilkura aretoan. Udaleko
arduradunek zero zabor
estrategiaren inguruan hitz
egingo dute.
- **Zizurkil.** Tolosaldeko Aste
Berdearen barruan, gaur, *Hon-
dakinen kudeaketa. Zero Zabor
Taldea* hitzaldia, 19:00etan,
Atxulondo kultur etxean.
- **Anoeta.** Herriko jaien hasiera
ofiziala, gaur: 18:55ean iragarri-
ko dute txalapartariak Kukua,
19:00etan hasiko dira jaiak, pla-
zan; 20:00etan sardina jatea,
plazan; 23:00etan, erromeria
Iratzar taldearekin.
- **Leitza.** Kultur Aroaren
barruan, Mendia, Kirola eta
Abenturaren Zinemaldia dago
gaur eta bihar, 20:00etan,
Peritzan.

Publierreportajea

Era egokian belztu ahal izateko «azala hezi» behar da

Antonio Losada adituak hitzaldia eskaini du, Tolosan, Shuyana Edergintza etxeak antolatuta



Antonio Losada Cosmética XXI-ko zuzendaria da. R. CALVO

Antonio Losadak argi du, eguzkia hartzeko, «azala hezi behar da». Hori azaldu zuen behintzat, pasa den astean Tolosan emandako hitzaldian. Tolosako Shuyana Edergintza etxeak gonbidatuta egon zuen kultur etxean, eta Cosmética XXI-ko zuzendari eta Esthedem institutuko aholkulari tekniko moduan hitz egin zuen, hau da, aditu moduan.

Eguzkia hartzerakoan kontutan hartu beharreko hainbat aholku eman zituen adituak. «Gure enpresan 32 urte baino gehiagoko esperientzia dugu, eta jendea eguzkia hartzearen kontuarekin geroz eta zalantza gehiago dituela ikusten dugu. Leku batzuetan, eguzkirik ez hartzeko esaten diete behin eta berriz, eta beste batzuetan, eguzkiaren onuraz hitz egiten diete eta, beraz, ez dakite zer egin». azaldu zuen.

Eta zer egin? «Abiapuntua bakarra da: gehiegikeria guztiak txarrak dira, eta behar bada, eguzkiari errespetua galdu diogu. Ulertu behar duguna da, azala bizirik dagoen organo bat dela, eta ingurura moldatu behar duela eta, behar bada, ez diogula moldatzeko nahikoa denbora ematen».

Azalaren berezko babes modua da beltzarantzea Losadaren hitzetan, eta ondorioz, organoa babesterakoan tentuz jokatu be-

har da: «Ezin duguna da, azalak berezko duen babesa mugatu edo kendu. Azala gehiegi babesten badugu azala eguzkitan denbora gehiagoan jartzen dugu, baina beltzarandu gabe. Eta geroz eta denbora gehiago egon eguzkitan gehiegi babestuta, orduan eta azal ahulagoa lortzen dugu».

Estheden institutuko kideak enpresan «azala eguzkipean era egokian edukitze» laguntzen dutela dio, «pertsonei eguzkipean era egokian egoteko aholkuak ematen dizkiegu, baina ez azala gehiegi babestuz, baizik eta azala eguzkiarekin batera bizikidetzen erakutsiz».

Aholkuak

Eguzkia hartzeko jarraitu beharreko aholkuei dagokionez, Losadak azalari «eguzkira moldatzen» utzi behar zaiola dio, «orain, lehen eguzki egun hauetan, lehen esposizioak mugatuak behar dute izan, eguneko 45 minututik

beherakoak. Batez ere, lehen hiru esposizioak oso motzak izan behar dute, azala esnarazteko, baina pixkana; ezin duguna da urte guztia eguzkia hartu gabe egon eta gero, orduak eta orduak eman eguzkipean. Bestetik, esan behar dut, helburua beltzaran jartzea bada, ez dela beharrezkoa eguzkitan denbora asko egotea; azalak beltzarantzeko 30 minutu besterik ez ditu behar, denbora honetan jartzen du martxan belzteko mekanismoa. Eguzkitan geroz eta gehiago jarri, orduan eta gutxiago belzten duzu, izan ere, azala erasotzen ari zara eta honek kalte horiek sendatzeko jartzen ditu martxan defentsa guztiak».

Bukatzeko eguzki orduen inguruan ere hitz egin zuen adituak. Ordurik egokienak goizean 10:00etatik 12:00etara, eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara dira, eta eguerdiko orduetan jarri gero ez da ordu bete baino gehiago egon behar.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-
enen eta iritzien erantzukizunik.



“Bilketa sistema garestiagoo bada ere kudeaketa ziklo osoa kontutan izanik merkeagoa da atez atekoa eta lanpostu gehiago sortzen du.”

Josu Amilibia.
Ekonomilaria.



Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

